Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5338

EBAZPENA, 2009ko irailaren 16koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxeek prestakuntza-jarduerak egin ditzaten 2009-2010 ikasturtean aurreikusitako dotazio ekonomiko edo diru-laguntzen kopuru osoa aldatzen duena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2009ko ekainaren 5eko Aginduaren bidez (2009ko ekainaren 15eko EHAA), Lanbide Heziketako heziketa zikloak ematen dituzten ikastetxeei dei egiten zitzaien, 2009-2010 ikasturtean prestakuntza-jarduerak egin ditzaten. Agindu horren 1.2 artikuluak ezartzen duenaren arabera, dotazio ekonomiko edo diru-laguntza horiek finantzatzeko 707.616,25 euro izango dira, EAEko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu partidaren kontura.

Bestetik, aipatutako artikuluak dioenez, aurreikusitako diru-kopuru osoa aldatu egin daiteke, dena den, eskatutako laguntzen guztizko kopurua kontuan hartuta, baita Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko beste laguntza-programa batzuen exekuziotik sortu daitezkeen aurrekontu-baliabide agortu gabeak ere, eta laguntzei buruzko ebazpena hartu baino lehen.

Diru-laguntza horiek emateko deialdiaren ebazpenak berekin dakartzan behar ekonomikoak ikusita, eta 2009ko ekainaren 5eko Aginduko 1.2 artikuluari jarraituta, honakoa

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Dotazio ekonomiko edo diru-laguntza horiek finantzatzeko 2009-2010 ikasturteko deialdian aurreikusitako diru-kopuru osoari 9.998,41 euro gehitzea, beraz, laguntza horiek finantzatzeko 717.613,66 euro izatea.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko irailaren 16a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
MARÍA SOLEDAD ESTEBAN GALARZA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

5338

RESOLUCIÓN de 16 de septiembre de 2009, de la Viceconsejera de Administración y Servicios del Departamento de Educación Universidades e Investigación, por la que se modifica el importe global de las dotaciones económicas o subvenciones destinadas a los centros docentes que imparten Ciclos Formativos de Formación Profesional para la realización de actividades de formación a desarrollar durante el curso 2009-2010.

Según establece el artículo 1.2 de la Orden de 5 de junio de 2009 de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación (BOPV de 15 de junio de 2009) por la que se convocan dotaciones económicas o subvenciones a los centros docentes que imparten ciclos formativos de Formación Profesional para la realización de actividades de formación a desarrollar durante el curso 2009-2010, se destinará al objeto de dichas dotaciones económicas o subvenciones la cantidad de 707.615,25 euros, con cargo a la partida presupuestaria establecida al efecto en los Presupuestos Generales de la CAPV.

Por otro lado, el citado artículo establece que el importe global asignado en ese artículo podrá ser modificado en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Educación, Universidades e Investigación y con carácter previo a la resolución de las mismas.

Vistas las necesidades económicas que trae consigo la resolución de dicha convocatoria de dotaciones económicas o subvenciones, y en virtud del artículo 1.2 de la Orden de 5 de junio de 2009 anteriormente citada,

RESUELVO:

Primero.– Incrementar en 9.998,41 euros el importe global previsto en la convocatoria de esas dotaciones económicas o subvenciones para el curso 2009-2010, es decir, destinar 717.613,66 euros a su financiación.

Segundo.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de septiembre de 2009.

La Viceconsejera de Administración y Servicios,
MARÍA SOLEDAD ESTEBAN GALARZA.